

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AUDIKAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea, eta 2018ko bigarren sei hilekoko ordainagiriak borondatezko epean ordaintzea

Audikan, etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2018ko bigarren sei hilekoa) ordaindu behar dutenen errolda egin da. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodunetz jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek Audikako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedienteak.

Ediktu honek, orobat, bete egiten du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, zergen foru arau orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea 2019ko otsailaren 11n hasi eta martxoaren 11n bukatuko da, egun bi horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2019ko martxoaren 11n kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Audikako Administrazio Batzarrak kudeatuko du zuzenean zordunketa, ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan egin beharrekoa.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errearguarekin, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Audika, 2019ko urtarrilaren 4a

Lehendakaria

AMALIA MARTÍNEZ DE ALBÉNIZ FERNÁNDEZ DE BETOÑO